

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Akabo 90 urteko misterioa

EKATERINBURG (ERRUSIA), 1918. Uztailaren 16ko gauean, Ejertzito Gorriak Nikolai II.a tsarrari eta bere familia osoari jaikitze eta janzteko eskatu zion. Tsarraren aldeko Ejertzito Zuria gertu zegoela-eta, lekualdatuko zituztela esan zieten. Sotora eraman zituzten, argazki baten aitzakian. Yakov Yurovskiren gizonak sartu ziren gero, baina ez zeramaten argazki kamerarik. Yurovskik berak, errebolbera atera eta errusiarrek heriotzara kondenatu zutela esan zion tsarrari. Buruan jo zion tiroa. Ondorengo tiro sortan tsarina eta Olga alaba hil zituzten. Eta beste sorta batek gainerakoak hil zituen, ustez behintzat. Tiroen kea desagertu zenean, tsarraren alaba Anastasia eta Maria bizirik zeuden; biek harribitxiak josi zituzten kortseen barrualdean eta, ezustean, balen kontrako txalekoen lana bete zuten. Baionetaz eta kolpeka errematatu zituzten.

Baina hori guztia ez zen 1989ra arte jakin. Orduan eman zen argitara *Yurovski txostena*, Yurovskik berak buruzagi boltxebikeentzat idatzitako exekuzioaren deskribapena. Bi urte geroago, 1991n, tsarraren familiaren ustezko arrastoak hobitik atera eta

aztertu zituzten. 1979an topatutako hobi komun batean zeuden. Ikerketen emaitzen arabera, Nikolai II.aren familiako kideak ziren, baina bi falta ziren: Alexei oinordekoa eta Maria.

Orain gutxi, 2007ko abuztuan, txostenak emandako xehetasunei esker, arrasto berriak topatu zituzten eta AEBetan egindako DNA frogak baieztatu berri dute Alexeiren eta Mariaren arrastoak direla. Amaitu da misterioa: uztailleko gau hartan Tsarraren familia guzti-guztia hil zuten.

Yurovskiren pelotoiko kideek gorpuk azido sulfurikoz busti zituzten, gero granada batez leherrarazi eta, azkenik, banandu egin zituzten. Neurri horiekin, hilobiak tsarraren aldekoen kultu-toki bilaka zitezten saihestu nahi zuten boltxebikeek.

Baina emaitza oso bestelakoa izan zen. Gorpurik eta, beraz, frogarik ezean, legenda gero eta gehiago gizen-tzen hasi zen. Tsarraren ustezko seme-alabak dozenaka azaldu ziren. Horien artean izarra Anastasia izan zen. Izarra, 1997an animaziozko musikal baten protagonista izateraino. Baina, azkenean, biologia molekularrak Yurovskiren pelotoiaren lana burutu eta istorio misterioaren amaiera idatzi du. ■

Eskuinean Nikolai II.a tsarraren irudia. Lerro hauen azpian, azken tsarra emaztea eta seme-alabekin. Azken aurkikuntzek ez dute zalantza izpirik uzten: 1918ko uztailaren 16an familia osoa exekutatu zuten.



ARRASTOAK



ARRAUTZA arrastoak aurkitu berri dituzte Xianeko gerrari ezagunetan. 1974an, Qin enperadorearen mausoleoan indusketa lanak egiten ari zirela aurkitu zuten terrakotazko 7.000 soldaduz osatutako ejertzito harrigarria. Harrezkerotzik, mundu zabalean Txinako inperioaren ikono bihurtzeaz gain, askotariko azterketak egin dizkiete eskultura horiei.

Azkenekoa kimikari alemaniar eta italiarrek burutu dute, eta buztinezko irudi guztiei gainetik arrautza irabiatu geruza bat eman zietela ondorioztatu dute. Animalia-jatorriko proteina hori aglutinatzaile gisa erabili zuten. Kolorea finkatzen zuen eta pigmentuei testura dotorea ematen zion. Esan beharrik ez dago eskultura ejertzito osoa estaltzeko milaka tona arrautza behar izan zituztela.